



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO URTARRILAREN 25EAN
GOIZEKO 8:35EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

1.- 2015EKO ABENDUAREN 28KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2015eko abenduaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- MANUEL MAIZ LABAKA JAUNARI, AMARRENEA ETXEA (GERNIKA
IBILBIDEA, 3) ERAISTEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0014

MANUEL MAIZ LABAKA jaunak, Amarrenea etxea (Gernika ibilbidea, 3) eraisteko udal baimena eskatu du.

AURREKARIAK

2008ko otsailaren 19an, MANUEL MAIZ LABAKA jaunak, Amarrenea etxearen (Gernika ibilbidea, 3) legezko aurri-egoeran deklaratzeko eskatu zuen. Eskaerarekin batera Maialen Sagarna, Juan Pedro Otaduy eta Ainara Sagarna arkitektoek idatzi eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoan 2008ko urtarrilaren 18an ikus onetsitako aurri egoerari buruzko txostena aurkeztu zuen.

Zegokion jardunbidea garatu ostean, ekainaren 30eko Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 201. artikulua xedatutako kontutan izanik, 2009ko abuztuaren 7an Tokiko Gobernu Batzarrak zera erabaki zuen hitzez hitz:

LEHENDABIZI: Amarrenea etxearen (Gernika ibilbidea, 3) legezko aurri-egoera deklaratzeko.

BIGARRENA: Ondasunaren jabeari hiru hilabeteko epea ematea, eraikina botatzeko proiektua Udal honi aurkezteko eta aginduz udal lizentzia eskatzeko, 2/2006 Legeko 207.1.h) artikulua araberako.

HIRUGARRENA: Erabakia honen berri higiezinaren gaineko eskubide errealeko titular, jabe eta bizilagunei ematea.



Usurbilgo Udala



2015eko azaroaren 26an berriz, Amarrenea etxearen zatiak erortzen ari direla kontutan izanik, Alkateak 2015/1099 dekretuaren bidez, zera erabaki zuen hitzez hitz:

LEHENDABIZI: Amarrenea etxearen (Gernika ibilbidea, 3) jabeari, MANUEL MAIZ LABAKA jaunari, 24 ORDUKO EPEA ematea dagozkion segurtasun neurriak hartzeko, bai eraikinaren ingurura eraikuntza zatiak eror ez daitezzen baita eraikina bera amildu ez dadin, beti ere teknikari eskudunaren erantzukizunpean.

BIGARRENA: Amarrenea etxearen (Gernika ibilbidea, 3) jabeari, MANUEL MAIZ LABAKA jaunari, HILABETEKO EPEA ematea teknikari gaituak izenpetutako Eraisketa Proiektua aurkez dezan Udalean, behin baimena jasota, berehalakoan eraiste lanak egikaritu ditzan.

HIRUGARRENA: Amarrenea etxearen (Gernika ibilbidea, 3) jabeari, MANUEL MAIZ LABAKA jaunari, dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean den araudiari jarraituz Udalak dagozkion isun espediente eta espediente zigortzaileak martxan jar ahalko dituela ohartaraztea. Eta halere agindutakoa egin ezean, udalak, subsidiarioki burutu ditzake eraiste lanak MANUEL MAIZ LABAKA jaunari ordainaraziz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei, udaltzaingoari eta udal aparejadoreari ematea.

ERAISKETA PROIEKTUA

MANUEL MAIZ LABAKA jaunak, 2016ko urtarrilaren 15ean, Eraisketa Proiektua aurkeztu du.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
EXEKUZIO AGINDUA

A-36 ELIZALDEA EREMUAN AMARRENEA ETXEAREN ERAISPEN PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Gernika kalea 3. Usurbil
ESKAERA DATA: 2016eko urtarrilaren 15
ESKATZAILEA: Manuel Maiz
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2016-0014
EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA: 23.370,66euro
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 3.621,68euro
Fidantza (%120): 4.346euro

AURREKARIAK



Usurbilgo Udala



- i. 2016ko urtarrilaren 15ean Manuel Maiz jaunak Amarrenea etxearen eraispen proiektu aurkeztu du Usurbilgo Udalean, dagokion baimena eskatuz.

Erlazionatuak: HZ.06/2008-0108

- ii. 2008ko otsailaren 19an Manuel Maiz Labaka jaunak, Amarrenea etxea legezko aurri-egoeran deklaratzeko eskatu zuen, Maialaren Sagarna, Juan Pedro Otaduy eta Ainara Sagarna arkitektoek idatzi eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoan 2008ko urtarrilaren 18an ikus-onetsitako aurrei egoerari buruzko txostena aurkeztuz.
- iii. 2008ko martxoaren 18an Oier Otxoantezana udal arkitektoak txostena eman zuen, Amarrenea etxea eta ondoko eranskina legezko aurri-egoeran deklaratzeko prozedura tramitatzeko beharra ondorioztatuz.
- iv. 2009ko ekainaren 1ean Alkatetzat 2009/0518 Dekretuaren bidez erabaki zuen Amarrenea etxearen legezko aurri-egoeran deklaratzeko espedienteari hasiera ematea.
- v. 2009ko ekainaren 1ean espedientea jendaurrean jarri zen 15 laneguneko epean.
- vi. 2009ko abuztuaren 7an Tokiko Gobernu Batzarrak Amarrenea etxea legezko aurri-egoeran deklaratzeko erabakia hartu zuen, interesatuari jakinarazi zitzaiona.
- vii. 2015eko azaroaren 23an herritar baten eskaera jaso da Udalean, Amarrenea etxearen zatiak erortzen ari direla-eta arriskuaz ohartaraziz eta Udalari gaia begira dezan eskatuz.
- viii. 2015eko azaroaren 24an udal arkitektoak txostena idatzi zuen honakoa esanaz:

"Gauzak horrela, behean izenpetzen duen teknikariak eraikinaren egoerak dakarren arriskua ikusita ezinbestean eta berehalakoan EXEKUZIO AGINDU bidez honako neurriak hartzea eskatzea irizten du:

9. **Jabegoari 24 ORDUKO EPEA ematea dagozkion segurtasun neurriak hartzeko, bai eraikinaren ingurura eraikuntza zatiak eror ez daitezen baita eraikina bera amildu ez dadin, beti ere teknikari eskudunaren erantzukinpean.**
10. **Jabegoari HILABETEKO EPEA ematea teknikari gaituak izenpetutako Eraisketa Proiektua aurkez dezan Udalean, behin baimena jasota, berehalakoan eraiste lanak egikaritu ditzan .**
11. **Jabegoak dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean den araudiari jarraituz Udalak dagozkion isun espediente eta espediente zigortzaileak martxan jar ahalko ditu."**

TXOSTENA

Manuel Maiz jaunak, Udalaren Exekuzio Aginduari jarraituz (ikus aurrekariak), Amarrenea etxearen Eraispen Proiektua aurkeztu du dagokion udal baimena eskatuz. Aurkeztu dokumentazioa da, eskaera orriarekin batera; Eraispen Proiektua teknikari gaituak izenpetua (arkitektoak) eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia (COAVN 2016-01-14). Eraispen Proiektuak barneratzen ditu; Memoria, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Segurtasun eta Osasunerako Oinarriko Azterlana eta Aurrekontua.

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:



Usurbilgo Udala



- SEGURTASUN NEURRIAK ETA BESTEAK: Eraispen lanak indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak eta segurtasunari dagozkion edonolako neurriak beteaz egin beharko dira ezinbestean.
- ZERBITZUETAKO TXOSTENA: Azpiegitura eta zerbitzuengan eraginaren inguruan, Zerbitzuetarako buruaren txostenera bideratzen da.
- UDALTZAINGOAREN TXOSTENA: Proiektuan bertan esaten denez: *“Eraikinaren ondotik pasatzen den bidea moztuko da eraispen lanek irauten duten bitartean, Partzelan bertan karga eta deskargarako gune bat jarriko da.”* Aipatu lanek trafikoarengan izan dezaketen eraginaren eta hartu beharreko neurrien inguruan, Udaltzaingoaren txostenera bideratzen da.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 23.370,6 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (4.346 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraituz, Amarrenea etxearen eraisketa proiektuari ALDEKO baimena idazten zaio, beti ere, aipatu baldintzen pean. Egungo egoera dela-eta, behin baimena jaso ostean obrak berehalakoan egikaritzea eskatzen da.

Bien bitartean, berehalako arrisku publikoa ekiditeko jabeagoak dagozkion neurriak hartzen ez dituen artean eraikinaren inguruan babes eremua ezartzea eskatzen zaio Udalari.

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe.

Usurbilen, 2016ko urtarrilaren 19an
HIRIGINTZA BURUA-UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren

Udal aparejadoreak berriz, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, 2016ko urtarrilaren 22an ondoko txostena eman du hitzez hitz:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA
ESKAERA: Udal zerbitzuengan eraginaren inguruko txostena



Usurbilgo Udala



ESKATZAILEA: Hirigintza saila
KOKAPENA: Gernika ibilbidea 3 (Amarrenea etxea)
ESP. ZENB: HZ.04/2016-0014

TXOSTENA

Gernika ibilbidea 3ko Amarrenea etxea eraitsi behar dutenez, eraispenak Udal zerbitzuetako azpiegitureengan eraginaren inguruko txostena eskatzen du Hirigintza sailak.

Aurkeztutako proiektuak ez du jasotzen Udal zerbitzuetako sareetan interbentziorik.

Etxe suntsitzekotal huriengoak kontutan izango dira:

Ur zikinak eta euri urak: Amarrenea etxearen azpitik garai bateko hodiak daude eta instalazio horien eta zer ur jasotzen duenaren informaziorik Udaletxean ez dago. Egon daitezkeen instalazioak zerbitzuan mantendu behar direlako gaur eguneko zoruko kotaren azpitik ez jaistea proposatzen da.

Eraispena egiterakoan eta hondakinak ateratzekoan kontutan izango da martxan jarraitu behar duten instalazioak daudela etxearen azpian, eta zerbait hondatzen bada konponketa berehalakoa izan behar dela.

Ur-hartuneak: Ur edangarriaren sareko hartunea moztuta dago eta ez da ezer berezirik egin behar.

Herriko argiak: Eraispenak ez du eraginik herriko argien instalazioan

2016ko urtarrilaren 22an
Zerbitzu eta Mantenu Saileko burua
Felix Aizpurua Arzallus

Udaltzaingoak berriz, 2016ko urtarrilaren 22an ondoko txostena eman du hitzez hitz:

Amarrenea etxearen eraispena **TRAFIKOARI DAGOKIONEZ HARTU BEHARREKO NEURRIAK**

Manuel Maiz jaunak Amarrenea etxearen eraispen proiektua aurkestu du udaletxean eta atal batean honela dio: "eraikinaren ondotik pasatzen den bidea moztuko da eraispen lanek irauten duten bitartean, partzelan bertan karga eta deskargarako gunek bat jarriko da".

Kontutan izanik :

- Amarrenea doan bideak hiru sarrera-irteera dauzka: bat, San Inazio kaletik; bestea Kiroldegia-Gernika ibilbide aldetik eta hirugarrena, Gernika ibilbidetik Gaztañaga etxea azpialdean dagoen tuneletik.



Usurbilgo Udala



- Lehen eta bigarren sarrerak pibote bidez itxita daude eta oizkoentzako pasabidea bihurtzen du Amarreneako bidea.
- Oinezkoak San Inazio eta Gernika ibilbidea erabil dezakete leku berdinerira iristeko inungo arazorik gabe .

Neurriak :

1. Bide honetatik oinezkoak ez pasatzeko seguritate neurriak hartzea. Hiru sarrerak baila luzeekin eta dagokion seinaleztapenarekin ixtea (R-116 seinaleak).
2. Karga-deskarga lanak eta Amarreneara bideratu behar diren gauza guztiak lehen sarrera-irteeratik egingo dira, San Inazio kaletik.

Eta jakinaren gainean egotearren eta dagozkion ondorioetarako adierazten dizuet, Usurbilen 2016ko urtarrilaren 22an.

Udaltzaina 07

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: MANUEL MAIZ LABAKA jaunari Amarrenea etxea (Gernika ibilbidea, 3) eraisteko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Maialen Sagarna eta Juan Pedro Otaduy arkitektoek 2016ko urtarrilean (EHAEO 2016-01-14) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Eraispén lanak indarrean dagokion araudiak ezarritako baldintzak eta segurtasunari dagozkion edonolako neurriak beteaz egin beharko dira ezinbestean.
- Ur zikinak eta euri urak: Amarrenea etxearen azpian garai bateko hodiak daude eta instalazio horien eta zer ur jasotzen duenaren informaziorik Udaletxean ez dago. Egon daitezkeen instalazioak zerbitzuan mantendu behar direnez eraisketa lanak ez dira gaur eguneko zoruko kotaren azpitik jaitsiko.

Eraispéna egiterakoan eta hondakinak ateratzekoan kontutan izango da martxan jarraitu behar duten instalazioak daudela etxearen azpian, eta zerbait hondatzen bada konponketa berehalakoa izan behar dela.

- Obra burutzeko zoru publikoa erabili beharko balitz, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Etxearen egoera ikusirik, eraiste lanak BEREHALA hasiko dira.



Usurbilgo Udala



- Amarrenea etxera doan bidetik oinezkoak ez pasatzeko seguritate neurriak hartzea. Hiru sarrerak baila luzeekin eta dagokion seinaleztapenarekin ixtea (R-116 seinaleak).
- Karga-deskarga lanak eta Amarreneara bideratu behar diren gauza guztiak San Inazio kaleko sarrera-irteeratik egingo dira.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenengo kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 3.621,68 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (4.346 euro). Fidantza itzularazteko, obra amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketaren azken txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretuaren 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

4.346 €ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta *"Fidantza: HZ.04/2016-0014"* jarriaz kontzeptuan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- 2015EKO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

Espedienteak: Noaia! Kultur Elkarte (KE.01/2015-0061)
Hitz-Aho Udarregi ikastolako guraso elkarte (KE.01/2015-0060)
Bihurri Txiki Ludoteka (KE.01/2015-0063)
Usurbilgo Dantza Taldea (KE.01/2015-0052)
Irri Abesbatza (KE.01/2015-0057)
Santuene Kultur Elkarte (KE.01/2015-0069)
Organoaren Lagunak (KE.01/2015-0062)
Zubietako Eskola Txikiko guraso elkarte (KE.01/2015-0071)
Akerra Gaztetxea (KE01/2015-0070)



Usurbilgo Udala



Ikusirik

2015eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, 2015eko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, diru-laguntza horiek modu honetara justifikatu dira:

Noaua Kultur Elkartea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
42. Inauteriak 2015	1.334,70	1.001,03	Gastuak: 2.129,01 Sarrerak: 308,00 Guztira gastua: 1.821,01 Soberakina: 486,31	333,67
43. Euskarazko laburbira	372,42	279,32	Gastuak: 657,76 Soberakina: 285,34	93,10
44. Sagastiak Loretan ospakizuna	1.717,74	1.288,31	EZ DA EGIN	-1.288,31
45. Plis Plas Txalo ta Jolas	789,77	592,33	Gastuak: 1.210,95 Soberakina: 421,28	197,44
46. Kulturaldia	4.247,35	3.185,51	Gastuak: 6.713,84 Sarrerak: 1.943,00 Guztira gastua: 4.770,84 Soberakina: 523,49	1.061,84
47. Pelikula emanaldi bat	466,74	350,05	Gastuak: 951,21 Sarrerak: 596,00 Guztira gastua: 355,21 355,21+111,53(42.ekintzako soberakina): 466,74	116,69
Guztira				514,43 €

Hitz – Aho Guraso elkartea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
38. Guraso tailerren jarraipena	996,00	747,00	Gastua:1.800,00 Soberakina: 804,00	249,00
39. Ikastolako Aste Kulturala	2.160,00	1.620,00	Gastua:688,37 38. eta 41. ekintzako soberakina 814,00 Guztira Gastua: 1.502,37 2. zatia: 1.502,00-1.620,00	-117,63
40. Jostailu erabilien	45,00	33,75	EZ DU GASTURIK IZAN	-33,75



Usurbilgo Udala



truke merkatua				
41. Hitzpro programa	360,00	270,00	Gastua:370,00 Soberakina: 10,00	90,00
Guztira				187,62 €

Usurbilgo Dantza Taldea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
22. Dantza ikastaroa	540,00	405,00	Gastuak: 4.818,50 Sarrerak: 5.760,00 Guztira: -941,50 23.,24. ekintzako soberakina: 1.472,09 Guztira gastua: -941,5+1472,09=530,59 2. zatia: 530,59-405,00	125,59
23 Kurtso amaierako irteera	70,00	52,50	Gastua:633,98 Soberakina: 563,98	17,50
24. Dantza emanaldia	840,00	630,00	Gastua:1.748,11 Soberakina: 908,11	210,00
Guztira				353,09€

Bihurri Txiki Ludoteka

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
52. Magoa + Pailazoa	270,00	202,50	Gastua: 450,00 Soberakina: 180,00	67,50
53. Eskulan tailerra	72,00	54,00	Gastua: 174,50 Soberakina: 102,00	18,00
54. Ipuin kontaketa	540,00	405,00	Gastua: 428,40 + 52. soberakina :111,60 Guztira gastua: 540,00	135,00
55. Merendola eta aurpegi pintaketa	99,00	74,25	Gastua: 183,51 Soberakina: 84,51	24,75
56. Ludoteka	360,00	270,00	Gastua: 853,38 Soberakina: 493,00	90,00
Guztira				335,25 €

Iriuri Abesbatza

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
37. Parrokiko ospakizuna	427,50	320,63	Gastua:427,50	106,87
Guztira				106,87 €

Santuenea Kultur Elkarte



Usurbilgo Udala



Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
72. Danborrada	72,00	54,00	Gastua:177,54 Sarrera: 66,50 Guztira gastua: 111,04 Soberakina: 39,04	18,00
73. Pintura eta plastika tailerra	2.106,00	1.579,50	Gastua: 3.471,45 Sarrera: 1,440,00 Guztira gastua: 2.031,45 72.,75. eta 76. ekintzetako soberakinak 74,55	526,50
74. Argazki lehiaketa	225,00	168,75	Gastua: 225,00	56,25
75. Kurtso bukaerako bazkaria eta ur jolasak	135,00	101,25	Gastua: 411,45 Sarrera: 250,11 Guztira gastua: 161,34 Soberakina: 26,34	33,75
76. Antzerkia: Txipli Txapla eta Txokolatada	1.089,00	816,75	Gastua: 1.163,04 Soberakina:74,04	272,25
77. San Juan Sua eta Sardin jana	315,00	236,25	Gastua: 365,40 Soberakina: 50,40	78,75
78. Gabonak	1.822,50	1.366,88	Gastua: 2.016,75 Soberakina: 194,25	455,62
Guztira				1.441,12 €

Organoaren Lagunak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
49. Donostia Musika Hamabostaldi inguruko Organo Kontzertua	1.575,00	1.181,25	Gastua:1.620,00	393,75
50. Donostia Musika Hamabostaldi barruan Organo jole internazionalen bilkura	225,00	168,75	Gastua: 249,99	56,25
51. Organo kontzertua	414,00	310,50	Gastua: 580,36	103,50
Guztira				553,50 €

Zubietako Eskola Txikiko guraso elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
84. Udako txokoak	1.800,00	1.350,00	Gastua:5.145,39 Sarrera: 2.360,00	281,39



Usurbilgo Udala



			Guztira gastua: 1.585,39 86. ekintzako soberakina: 46,00 Guztira: 1.631,39 2. zatia 1.631,39-1.350,00	
85. Aste kulturala	1.620,00	1.215,00	Gastua: 1.475,00 2. zatia 1475,00-1.620,00	260,00
86. Hitzaldiak	324,00	243,00	Gastua: 370,00 Soberakina: 46,00	81,00
Guztira				622,39 €

Akerra Gaztetxea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Akerra Gaztetxeak Udalari itzuli beharrekoa
80. Dj Gaua (Martxoak 7)	405,00 €	303,75 €	EZ DA JUSTIFIKATU.	303,75 €
81. Kontzertu gaua (urtean zehar)	855,00 €	641,25 €	EZ DA JUSTIFIKATU.	641,25 €
82. Pala Txapelketa	180,00 €	135,00 €	EZ DA JUSTIFIKATU.	135,00 €
83. Kotxe mantenu tailerra (uztaila-abuztua)	270,00 €	202,5 €	EZ DA JUSTIFIKATU.	202,5 €
Guztira				1282,5 €

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2015n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2015/02/03).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileari kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintzak	Ordainketa
Noaua kultur elkarte	42,43,44,45,46 eta 47	514,44
Hitz-Aho Udarregi ikastolako guraso elkarte	38,39,40,41	187,62
Usurbilgo Dantza taldea	22,23,24	353,09
Bihurri Txiki Ludoteka	52,53,54,55,56	335,25
Iriuri Abesbatza	37	106,87
Santuene Kultur Elkarte	72,73,74,75,76,77,78 eta 79	1.441,13
Organoaren Lagunak	49,50 eta 51	553,50



Usurbilgo Udala



Zubietako eskola txikiko guraso elkarteak	84,85,86	622,39
---	----------	--------

Eskatzaile honek Udalari diru-itzulketa egitea:

Eskatzailea	Ekintzak	Akerra Gaztetxeak Udalari itzuli beharrekoa
Akerra Gaztetxea	80, 81, 82 eta 83	1.282,5 €

Diru-itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXA: 2095 5069 07 1060024832

EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

Bigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03 2015 (A 3/2015)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:05etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.